

Gurasoei eskertza

Ikastolatik baso-eskolako auzolanean parte hartu zenuten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu, zuen laguntza garrantzitsua baita proiektua aurrera ateratzeko.



Ikasle-asegurua

Urriko erreziboarekin batera, ikaslearen istripu-aseguruaren kobrantza egingo da. Urteko prezioa **15,60** eurokoa izango da. Zerbitzu mediku guztiak zentro kontzertatura, hau da, Poliklinika Gipuzkoara joanez emango dira, ez da medikua ikastolara bertaratuko.



Kilometroak 2024

Igande honetan, urriak 6, Azpeitian ospatuko da aurtengo Kilometroak festa. Azpeitiako Ikasberri ikastolari dagokio antolatzea. Informazio gehiago, kilometroak.eus webgunean. Animatu! Giro ederra izango da eta!



Guraso bilera euskara errefortzuen inguruan

Ikasturte honetan ere, Udalak, euskara errefortzurako saioak antolatu ditu ikasleentzat. Saioetan parte hartuko duten ikasleen gurasoei informazioa eskaintzeko bilera egingo da.

Bilera, **urriaren 14**an izango da Agerialde eraikinean arratsaldeko **16:00**tan. Agerialde eraikineko frontoian elkartuko gara.



Usurbilgo Udala

HAUR-HEZKUNTZA

Ez dago berrik.

LEHEN HEZKUNTZA

Ez dago berrik.

DBH

Ez dago berrik.